


Francis Jansen inventarium



Udaberi alua

Jatorrizko izenburua: *Chien de printemps*

Egilea: Patric Modiano

Itzultzailea: Pello Lizarralde

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Igela

ANDER IRIZAR

Paris, 1964ko udaberria. Liburuko narratzaileari, halako batean, horixe etorri zaio gogora hogeita zortzi urte geroago; auskalo zergatik... Hemeretzi urte zitueneko udaberria (Modianok ere adin horixe zuen udaberri hartan...); Francis Jansen argazkilaria ezagutu zueneko udaberri hura. "Udaberri alua": hala esaten omen zuen sarritan Jansenek sasoi hartan, narratzaileak dioenez. Garai hobekak gogoan zituelarik_esango zuen hori, beharbada; Robert Capa argazkilaria famatua eta biak Gerra Zibilean edo Frantziako Tourrean elkarrekin ibili zireneko haiek, esaterako. Begiratu nahi ez dituen argazkiekin betetako hiru maleta ondare bakar, alde egin eta desagertu nahian dabil Jansen, eta, Parisen den bitartean, jende askori iheska ere bai.

Ihesa, memoria, ahanztura, zurztasun emozionala: Modianoren beti-betiko gaiak ageri zaizkigu *Udaberri alua* nobela labur honetan. Kontatzeko era ere Modianok berezkoa duena: hitz gutxi, soiltasun erabatekoa, xehetasunak baizik ez... Modianok nobelako pertsonaia Francis Jansenen ahotan jartzen duen moduan, idaztean "isiltasuna hitzekin sortzera iristea" omen litzateke interesgarria, eta horretan saiatzen da, hain zuzen, idazle frantsesa. Agertoki nagusia, bestalde, Modianoren beste lan askotan bezala, hirurogeiko hamarkadako Paris dugu. Kaleak, kafetegiak, leku eta zoko zehatzak agertzen zaizkigu. Ez dugu, ordea, horien deskribapen xeherik aurkituko. Batzuetan, gainera, aipatuta baizik ez dira azalduko, argazki-zerrendetan; gure narratzaileak, izan ere, aipatu ditugun hiru maletetan pilatutako argazkiak katalogatzeko lana hartuko du. Horrelako inbentario obsesiboak ere ohikoak ditu idazle frantsesak.

Modianok aitortu izan duenez, liburu bakarreko idazlea omen da bera; idazle-bizitza osoa hartuko omen dio, ordea, liburu horrek. Etsipenez onartzen du ez dela gauza beste ezer idazteko, beragandik urrundua, arinagoa. Nahi omen luke, baina ezin. Hori horrela, ez da harritzekoa batzuek Modiano asko estimatzea eta beste batzuei, aldiz, gorrotagarria gertatzea. Esango nuke Pello Lizarralde –berak itzuli du liburu– lehenengoetakoa dela, hau da, Modiano oso gustuko dutenetakoa; izan ere, irudipena dut idazle gipuzkoarraren estiloak ere baduela Modianorenetik zerbait. Eta itzultzailearen eta idazlearen edo bere obraren arteko identifikazio minimo bat ez da gutxienekoa; aitzitik, iruditzen zait aski lagungarria gertatzen dela itzulpen-lana gauzatzean. Gainera, Pello Lizarralde gustua hartzen ari zaio, nonbait, literatura-itzulpengintzari, euskaratutako laugarren liburu baitu honako hau. Ez da harritzekoa, etekinik ere aterako dio-eta seguruenik langintza horri; luma eta begirada zorrozteko ariketa ezin egokiagoa da, edo izan daiteke, izan ere, literatura itzultzea.